ERABAKI DUT

Onartzea ureztaketak modernizatu, sendotu edo hobetzera zuzendutako laguntzen 2012ko deialdia. Hona hemen xehetasunak:

- Eskaerak aurkezteko epea eta tokia: Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuan (Vicente Goikoetxea kalea 6 - 3. solairua, Gasteiz), hilabeteko epean, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

- Kreditu erreserba: 603.146,91 euro, "Dirulaguntzak LGIP Azpiegiturak (Ureztaketak modernizatzea)" izeneko urte hauetako 40.1.01.46.00.761.00.03 partidaren kontura:

- 2012. urtea (115.646,91 euro) (xedapen erref.: 12.1.12.105.3087/000).

- 2013. urtea (487.500,00 euro) (xedapen erref.: 12.3.13.105.42/000).

2012. urterako, diruz lagundutako korritu puntu gisa laguntza kalkulatzeko kontuan hartuko den gehieneko tasa hauxe izango da: maileguaren kapitalaren ehuneko 3,05.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 3a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputatu nagusiordea, MARTA ALAÑA ALONSO.– Nekazaritza zuzendaria, LUIS JAVIER ROMÁN DE LARA.

ACUERDO

Aprobar para el año 2012 la convocatoria de ayudas destinadas a la Modernización, Consolidación o mejora de Regadíos con arreglo al siguiente detalle:

- Lugar y plazo de presentación de solicitudes: en el Servicio de Desarrollo Agrario, sito en la calle Vicente Goikoetxea, 6- 3º de Vitoria Gasteiz, durante el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de publicación en el BOTHA del presente Acuerdo

- Reserva de crédito: 603.146,91 euros con cargo a la partida 40.1.01.46.00.761.00.03 "Subvenciones PDRS Infraestructura (modernización Regadíos) en las siguientes anualidades:

- 2012 (115.646,91 euros) (Referencia contraído 12.1.12.105.3087/000).

- 2013 (487.500,00 euros) (Referencia contraído 12.3.13.105.42/000).

Para el año 2012 el tipo máximo que se tendrá en cuenta para el cálculo de la ayuda en forma de puntos de intereses subvencionados será de 3,05 por ciento sobre el capital del préstamo

Vitoria-Gasteiz, 3 de agosto de 2012.– Diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Teniente del diputado general, MARTA ALAÑA ALONSO.– Director de Agricultura, LUIS JAVIER ROMÁN DE LARA.

*Foru Aginduak*

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**4779**

**386/2012 FORU AGINDUA, abuztuaren 1ekoa. Honen bidez, behin betiko onartzen da baldintzekin Arraia–Maeztuko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioak aldatzeko espedientea, lurzoru urbanizaezinean dauden nekazaritza biltegiek hiri lurzoruarekiko izan behar duten distantziari buruzkoa.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Arraia–Maeztuko Udalak, 2011ko abuztuaren 1eko bilkuran, hasierako onarpena ematea erabaki zuen planeamenduko arau subsidiarioen 10. aldaketa puntualaren espedienteari, lurzoru urbanizaezinean dauden nekazaritza biltegiek hiri lurzoruarekiko izan behar duten distantziari buruzkoari; baita hura jendaurrean jartzea ere, iragarki bana jarrita 2011ko irailaren 2ko eta 103 zenbakiko ALHAOn, 2011ko abuztuaren 24ko Diario de Noticias de Álavan eta udaletxeko iragarki taulan; gainera, jakinarazi egin zitzaien udalerria osatzen duten administrazio batzarrei.

Bigarrena.- Jendaurrean egon zen bitartean, ez zen alegaziorik aurkeztu; beraz, udalak, 2012ko otsailaren 29ko bilkuran, behinbehineko onarpena eman zion espedienteari eta erabakia jakinarazi zien udalerria osatzen duten administrazio batzarrei.

Hirugarrena.- Arraia-Maeztuko Udalak ekimen pribatu bidez proposatutako aldaketak lurzoru urbanizaezinean eragina duenez gero, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren prozedura izapidetu da. Aldez aurreko kontsulten txostena 2011ko urtarrilaren 10ean eman zen, aurretxostena, berriz, 2011ko ekainaren 20an, eta behin betiko txostena, 2012ko maiatzaren 28an.

Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalaren maiatzaren 23ko 3/2012 bilkuran, espedientearen aldeko txostena eman zuen.

Bosgarrena.- Arraia–Maeztuko Udalak espedientea bidali zuen aldundiak behin betiko onar zezan (sarrera erregistroaren data: 2012ko ekainaren 8a).

Seigarrena.- Halaber, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/1999 Foru Dekretuan agindutakoa betez, espediente horren inguruko txostena eman zuen Arabako Hirigintza Batzordeak, bere 5/2012 bilkuran, uztailaren 26an.

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**4779**

**ORDEN FORAL 386/2012, de 1 de agosto, de aprobación definitiva con condiciones del expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municioio de Arraia-Maeztu, relativa a la distancia de almacenes agrícolas situados en el suelo no urbanizable respecto al suelo urbano.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- El Ayuntamiento de Arraia-Maeztu acordó, en sesión del día 1 de agosto de 2011, aprobar inicialmente el expediente de la 10ª modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, referente a la distancia de almacenes agrícolas situados en suelo no urbanizable a suelo urbano, así como someterlo a información pública, hecho que fue practicado mediante la inserción de los oportunos anuncios en el BOTHA nº 103, de 2 de septiembre de 2011, en el periódico Diario de Noticias de Álava de 24 de agosto de 2011, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y notificación a las Juntas Administrativas que integran el municipio.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada alegación alguna, por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 29 de febrero de 2012, a aprobar provisionalmente el expediente y notificar dicho acuerdo a las Juntas Administrativas del municipio.

Tercero.- Dado que la modificación propuesta por el Ayuntamiento de Arraia-Maeztu a iniciativa privada afecta al suelo no urbanizable, ha sido tramitado el correspondiente procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, habiéndose emitido el informe de consultas previas el 10 de enero de 2011, el informe preliminar el 20 de junio de 2011 y el informe definitivo el 28 de mayo de 2012.

Cuarto.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 3/2012, de 23 de mayo, de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava, informó favorablemente el expediente.

Quinto.- El Ayuntamiento de Arraia-Maeztu remitió el expediente para su aprobación definitiva con fecha de entrada en el Registro de esta Diputación de 8 de junio de 2012.

Sexto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 5/2012, de 26 de julio.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Espedientea ekimen pribatu bidez sustatu da, Arraia–Maeztuko Udalak izapidetu du, eta aldatu egiten du 2003ko urtarrilaren 20an behin betiko onarturiko eta urte bereko 115 zenbakidun ALHAOn argitaraturiko indarreko udal arau subsidiarioen 202. artikulua (eraikuntzako erabilera eta jarduerei esleitutako hirigintza parametroak). Hain zuzen ere, artikulu horretako 1. paragrafoak -non zehaztu egiten den zer hirigintza eta eraikuntza parametro bete behar dituzten bai nekazaritza biltegiek bai lur erabilerari lotutako abeltzaintza ustiategiek- bere idazkeraren bidez xede bat lortu nahi du, eta da kentzea nekazaritza biltegiek izan behar duten 100 metroko distantzia, baina eustea lur erabilerari lotutako abeltzaintza eraikuntzek hiri lurzoruarekiko izan behar dutena.

Bigarrena.- Aldaketak badu arrazoirik, kontraesana dago-eta lurzoru urbanizaezinean jar litezkeen nekazaritza biltegiei ezarritako parametroen artean, haiek 100 metroko distantzia izan behar dutelarik hiri lurzoruarekiko. Aitzitik, hiri lurzoruan baimena dago nekazaritza biltegiko eraikuntza erabilerarako; beraz, paradoxa da hiri lurzorua babestea lurzoru urbanizaezinetik abiatuta, hiri lurzoruaren barruan onartutako erabileran.

Hirugarrena.- Aldaketak ez lituzke areagotuko lurzoru urbanizaezinaren zonifikazioak, non nekazaritza biltegiak eraiki daitezkeen, ezpada ahalbidetu baino ez luke egingo biltegiok udalerriko gune guztien hiri lurzoruko mugatik 100 metro baino gutxiagora eraikitzea, baina indarreko arau subsidiarioek uzten duten kategorietan.

Laugarrena.- Ingurumen eraginaren behin betiko txostenak adierazten duenez, behin-behineko onarpena duen agiriak aurretxostenak ezarritako neurriak jasotzen ditu.

Bosgarrena.- Behin betiko onar dadin aurkezturiko aldaketa-agiri teknikoan, gisa horretako eraikuntzak paisaian integratzeko eta haiek eragindako begi inpaktua zuzentzeko IEBEn ezarritako neurriak jaso beharko dira, altxa ez dadin ingurua desitxuratzeko eraikinik.

Seigarrena.- Arraia–Maeztuko Udalaren eskumen esparrukoa da 100 m-ko distantzia kentzea, ez delarik hausten udalaz gaindiko inolako lege araurik ez xedapenik; horiek horrela, ezin daiteke jarri oztoporik. Baina horrek ez du eragozten Arraia–Maeztuko Udalak, hirigintzan dituen eskumenez baliatuz, nekazaritza eraikuntzek, hiri lurzorutik hurbil kokatzean, kontrola dezan paisaian eragin dezaketen inpaktua.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onarpena ematea Arraia–Maeztuko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioak aldatzen dituen espedienteari, lurzoru urbanizaezinean dauden nekazaritza biltegiek hiri lurzoruarekiko izan behar duten distantziari buruzkoari, baldin eta hori dela-eta landu behar den agiri tekniko bateratuan berariaz adierazten badira gisa horretako eraikuntzak paisaian integratzeko eta haiek eragindako begi inpaktua zuzentzeko IEBEn ezarritako neurriak, altxa ez dadin ingurua desitxuratzeko eraikinik.

Bigarrena.- Baldintza hori ez da funtsezkoa. Beraz, hura zuzendutakoan espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio, testu bateratuan, eta ez da zertan egin izapiderik berriz ere jendaurrean jartzeko, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, eginbideak egin ditzan eta argitara dezan.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena.- Administrazio bidea agortzen duen ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, eta horretarako bi hileko epealdia egongo da ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 1a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El expediente, promovido a iniciativa privada y tramitado por el Ayuntamiento de Arraia-Maeztu, modifica el artículo 202 (relativo a los parámetros urbanísticos asignados a los usos y actividades constructivas) de las vigentes normas subsidiarias municipales aprobadas definitivamente el 20 de enero de 2003 y publicadas en el BOTHA 115 de ese mismo año. Más concretamente, la redacción del apartado 1 de dicho artículo -en el que se determinan los parámetros urbanísticos y edificatorios que deberán cumplir tanto los almacenes agrícolas como las explotaciones ganaderas ligadas al uso del suelo- tiene por objeto eliminar la limitación de guardar una distancia de 100 metros para el caso de almacenes agrícolas pero manteniendo las distancias a suelo urbano en el caso de construcciones ganaderas ligadas al uso del suelo.

Segundo.- La modificación se justifica al observarse una contradicción entre los parámetros establecidos para los almacenes agrícolas que se podrían ubicar en el suelo no urbanizable, estableciendo una distancia mínima de 100 metros al suelo urbano, cuando en el suelo urbano se autoriza el uso constructivo de almacén agrícola; resultando una paradoja que se proteja, desde el suelo no urbanizable, el suelo urbano, en un uso admitido dentro de éste.

Tercero.- La modificación no incrementaría las zonificaciones de suelo no urbanizable en las que se permite la construcción de almacenes agrícolas, sino únicamente su construcción a menos de 100 metros del límite del suelo urbano de todos los núcleos del municipio, pero en las categorías que las vigentes normas subsidiarias lo permiten.

Cuarto.- El informe definitivo de impacto ambiental señala que el documento aprobado provisionalmente recoge las medidas impuestas en el informe preliminar.

Quinto.- En el documento técnico de modificación presentado a aprobación definitiva, deberán incluirse las medidas establecidas en el ECIA destinadas a la integración paisajística y a la corrección del impacto visual de estas construcciones en aras de evitar edificaciones distorsionantes.

Sexto.- La supresión de la distancia de 100 m. es una determinación que entra dentro del campo competencial del Ayuntamiento de Arraia-Maeztu, no vulnerándose ningún precepto legal ni disposición de carácter supramunicipal, por lo que no cabe oponer objeción alguna. Ahora bien, ello no obsta para que el Ayuntamiento de Arraia-Maeztu en ejercicio de sus competencias urbanísticas, controle el impacto paisajístico que las construcciones agrícolas puedan generar al posibilitarse su ubicación en contacto con el suelo urbano.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Arraia-Maeztu referente a la distancia de almacenes agrícolas situados en suelo no urbanizable respecto al suelo urbano, con la condición de que en el documento técnico refundido que se ha de elaborar, se haga una referencia explícita a las medidas establecidas en el ECIA, destinadas a la integración paisajística y a la corrección del impacto visual de estas construcciones, en aras de evitar edificaciones distorsionantes.

Segundo.- La condición señalada no es sustancial, por lo que una vez subsanada se elevará el expediente a la Diputación Foral, elaborando un texto refundido, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 1 de agosto de 2012.– La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.